



ESKUALDEKO LEHEN BATAIO SAHARARRA BIHAR

Anoetan bizi diren Elbar eta Ghalohak alaba jaioberriari izena jartzeko festa, 'lasem' izenekoa, ospatuko dute » 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-01-22

VIII. URTEA 1.909. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Joxe Agustin Arrieta zinegotziak eta hainbat boluntariok atzo aurkeztu zuten ekimena. ESTI EZEIZA

ADINEKOEI LAGUNTZA ESKAINTZeko AUKERA

TOLOSA Nagusilan proiektuaren inguruko informazioa zabaltzeko triptikoak banatuko dituzte bihar goizean Triangulo plazan » 3

Torrea elkarteko kideek usadio bilakatu den Barrikotea antolatu dute Ihoteetan



Torrea elkarteko kideek VI. Barrikotera joateko deialdia egin dute. A. IMAZ

LEITZA Ainara Gastearnak eta Eneko Astibiak gonbitea luzatu dute » 4

TAOaren ezarpenak hautsak harrotu ditu herrian

IBARRA Urte hasieran jarri zuten ibilgailuak aparkatzeko sistema berria bi eremutan » 6

Inauterietarako hainbat neurri hartu dituzte

TOLOSA Konpartsek eta karrozek musika 01:00etan itzali beharko dute » 7

'Ohean' antzezlan gaur Gurea antzokian 22:30ean

VILLABONA Matxalen de Pedro eta Aitor Beltran dira antzezleak » 5

Presaren puzeak «uholdeen arriskua gutxitu» dezake

TOLOSA PSE-EEren esanetan «kirola egiteko aukera gehiago emango du» » 2



TXOKOA hitza

LAGUN ARO GBC REAL MADRID

saskibalo partidarako
Urtarrilak 24 • Igandea • 12:30ean Donostiako Ilunben

Belen Maizkurrena Urkizu (Tolosa)

sarrerak HITZAko gure egoitzan jaso

TXOLARRE irratiak bere 10. urteurrenean antolaturiko Bertso jaialdirako

Bihar • 18:00etan Tolosako Leidor aretoan

Angel Errondosoro Artolabide (Anoeta)

sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin



saridunak



L **Laburrak****Elena Calen omenezko meza gaur, 19:00etan**

TOLOSA • Santa Maria parrokian meza izango da gaur pasa den igandean hil zuten Elena Calen alde. 19:00etan hasiko da elizkizuna.

Kosaka bezala irten nahi dutenentzat entseguak

TOLOSA • Inauterietako haur danborradan kosaka bezala ater nahi dutenek biharko eta datorren larunbateko, hau da, hilaren 30eko, Musika Eskolako entseguetara azaldu beharko dute, 15:30etik 16:30era bitartean. Apeaderoako sarrera erabiltzeko eskatu dute arduradunek.

Belokik ezingo du jokatu belaueneko lesioagatik

PILOTA • Oinatz Bengoetxea eta Belokik, Titin III.a eta Paskualen aurka jokatzeko pilota aukeraketa atzo egin zuten. Hala ere, azken egunetan Ruben Belokik ezker belauanean izan dituen eragozpenak direla eta, 2-3 astez ezingo du jokatu. Bere lekua Iñaki Otxandorenak bete beharko du.

T **Telefonoak****Larrialdiak. ((112))****OSASUNA.****Alegialdea.** Osasun z: 943 653212**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423**Baliarrain.** Medikua: 943 889003**Berastegi-Elduain**

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720**Leitza.** Osasun z: 948 510800**Orendain.** Medikua: 943 655595**Orexa.** Medikua: 943 682228**Tolosa.****Anbulatorioa, larriald:** 943 461111**San Esteban:** 943 006800**Gernikako arbola:** 943 006900**Amarozko dispen:** 943 672637**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536**Gurutze Gorria:** 943 674888**Villabona.** Anbulat: 943 006970**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930**GARRAIOAK.****Renfe:** 902 24 02 02**Donostiako autobusa:** 943 361740**Tolosalde bus:** 943 650621**Leitzarar autob:** 948 221015**Taxia:** 943 670420**Taxia (Leitza):** 608 873016**BESTERIK.****Ertzaintza:** 943 538820**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858**Tolargi:** 943 650016**Iurramendi egoitza:** 943 670325**Tolosa gasa:** 943 675320**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

Anoetan bizi diren Elbar eta Ghaloha sahararrek alaba berri dute; bihar 13:00etatik aurrera egingo dute haurrari izena jartzeko ospakizuna, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte festara.

Eskualdeko lehen 'lasem'-a**INIGO TERRADILLOS**

Hiritar berrien kopurua handituz doa gure eskualdean. Bateko eta beste teko kulturak eta tradizioak nahastean doaz, eta elkarrengandik ikasiz guztiona ere aberastu egiten da.

Anoetan bizi diren Elbar eta Ghaloha herritar berriak direla esan daiteke. Jaiotzez sahararrik dira, eta Anoetan bizi dira azken urteetan. Sendia Fatma alabak eta Yasin semeak osatzen dute. Orain, gainera, kide berri batek familia handitu egin du, izan ere, pasa den ostegunean jaio zen Mbarklina. Erlizjioz musulmanak direnez, ez dituzte gurean haur bat jaiotzean egin ohi diren ospakizun edota errituak egingo, baina hori bai, aldatzen ez dena da gurean bezala eurek ere festa handi bat egingo

duzela alaba berriaren jaiotzean aitzakian.

Jaio eta astebetara izena

Sahararren tradizioen arabera, haurra jaio eta handik astebetara egiten dute jaioberriari izena jartzeko festa. *Lasem* du izena ospakizun honek, gurean bataioa litza-tekeena.

Rachid Salem Abdrrahman Tolosan bizi den sahararrik azaltzen duenez, «arkumeak eta ahuntzak hiltzen dira festa handiaren bazkarrirako eta nahi duen orok parte hartu ahal izaten du». Halaber, jaiotzearen astebetara egiten festaz gain, beste berezitasun bat ere izaten da: «sahararren tradizioari jarraituz, haurra jaio eta handik 40 egunera ilea moztu egiten zaio», dio sahararrik.

Bada, Mbarklina ez da Saharan



Ghaloha ama, haur jaioberriarekin eta alaba Fatmarekin. INIGO TERRADILLOS

jaio, baina, hala ere, bere kulturak eskatzen duen moduko festa izango du.

Bihar eguerdian izango da ospakizuna Ereite elkartean

Elbar eta Ghaloharen alabaren jaiotza ospatzeko festa bihar egingo dute Ereite elkarrekin San Esteban auzoan duen egoitzan.

13:00etan hasiko dira ospakizunarekin eta saharar festetan ohikoak diren jakiak eta musika izango dira bertan ere. Eskualdean egiten den lehen saharar *lasem* edo bataioa da, beraz. Rachid Salemek dioen bezala, «gure tradizioak ezagutzeko aukera polita izan daiteke eskualdeko herritarrentzat, elkartera joan eta festan parte hartuz».

Tolosa » PSE-EEren ordezkariak izan ziren atzo presaren lanak ikusten: «kuholdeen arriskua gutxitzea ahalbidetuko du».

ERREDAKZIOA

Oria ibaiko presa berriaren lanak amaitzeaz daude, eta egun batzuen buruan erabilgarri izango da. Azpiegitura berri hau bertatik bertara ikusteko Julio Astudillo Euskal Sozialisten batzarkideen bozeramailea izan zen atzo Tolosan Oscar Renedo udaleko PSE-EE alderdiko zinegotziarekin batera. Proiektu berria «herriarentzat oso beharrezkoa eta baliagarria izango dela zentzu askotan» esan zuten, eta horregatik, «PSE-EEk beti izan du argi hori bultzatu behar zela».

Pasa den urtean Espainiako Gobernutik E Planaren baitan bideratuko diru laguntzekin ekin zioten presa puzgarriaren eraikuntzari. Hain zuzen ere, 1,5 milioi euroko aurrekontua izan du proiektuak. Oscar Renedo kirol zinegotziak azaldu zuenaren arabera, «presa eraikita dago, eta erabiltzen hasteko azken ukituak baino ez zaizkio falta, hau da, informatika alorrekoak». Izan ere, automatikoki funtzionatu du, eta horretarako programatu beharra dago. «Horrek uholdeen arriskua gutxituko du, ura maila batera igotzen denean hustu egingo baita presa, uraren maila jaitsiz», gehitu zuen

«Presa beharrezkoa eta oso baliagarria izango da herriarentzat»

Oscar Renedo kirol zinegotzia eta Julio Astudillo Euskal Sozialisten batzarkideen bozeramailea, atzo Tolosan. N. LATABURU

Renedok. Halaber, era automatikoan ez ezik, eskuz ere maneiatu ahaliko da presaren funtzionamendua behar izanez gero.

Renedok, bestalde, presak «beste onura batzuk» ere ekarriko dituela nabarmendu zuen: «arrauna, piraguismoa edota arrantza bezalako kirolak egiteko aukera handiagoa gongo da orain, eta kolektorearen lanak amaituta, ibaiaren ura garbiagoa egingo denez, bertan bainu bat hartzea ere posible izango dela uste du».

Aurten 1,5 milioi proiektuetarako

Julio Astudillok E Planaren helburuak bete egin direla azpimarratu zuen atzo eginiko agerraldian; «krisiaren testuinguruan jarri zen abian ekimena epe motzean ekonomia dinamizatzen; Gipuzkoan 125 milioi bideratu dira proiektuetarako eta 3.800 lanpostu sortu dira horiek gauzatzeko».

Aurten ere, Espainiako Gobernutik gisa bereko laguntza izango dute udaletxeek proiektuak aurre-

eramateko. Kopurua iaizkoa baino txikiagoa izango da, eta Tolosaren kasuan 2 milioi euro inguru izango du Udalak. Diru hori guztia, ordea, ez du erabiliko proiektuetarako, izan ere, aurtengo diru laguntzetan aukera dute udaletxeek laguntzaren zati bat aurrekontuetara, gizarte zerbitzuen alorrera bideratzeko. Aurkeztuko dituzten proiektu guztiak zehaztu gabe dituzte, baina esaterako, Zumalakarregi kalea oinezko egiteko diru laguntza hori erabiliko dute.



Herri guztietara iritsi dira olio edukiontzia

INGURUMENA Eskualdeko herri guztietara iritsi da jada olio edukiontzia berria. Hala, Zabor Mankomunitateak martxan jarritako kanpainarekin lotuta, egun hauetan olioaren birziklapena errazteko inbutuak banatzen ari dira herri ezberdinetan. Herritarrek triptiko bat jasoko dute etxean eta bertan informatuko zaien bezala, udaletxera joanda eskuratu ahal izango dute inbutua. Olio gordetzeko plastikozko botilak edo brik-ak erabiltzea komeni da, eta hauek ondo itxita sartzea edukiontzira. E.E.

Adinekoei lagundu eta konpainia egiteko, Nagusilan boluntario bila dabil

Tolosa Hirugarren adinekoein egoteko, talde bat osatu nahi dute; Gizarte Zerbitzuetako sailak koordinatuko du proiektua.

ERREDAKZIOA

Nagusilan ekimena Tolosara ere iritsi da. Hirugarren adinekoko zaintzea eta laguntzea da bere helburua, eta hori boluntarioen bitartez egiten dute. Euskal Herrian urte asko daramatzan proiektua da Nagusilan, baina Tolosara, orain helduko da.

Udaleko Gizarte Zerbitzuak dira ekimenaren koordinatzaileak. Atzo aurkeztu zuten egitasmoa Jose Agustín Arrieta zinegotziak, eta dagoeneko izena eman duten zenbait boluntario. Talde txiki bat jada baldin badago ere, ez da nahikoa eta jende gehiago behar dute tolosarren beharrak asetzeko.

Adinekoak animatzea, entrenitzea eta konpainia egitea dira boluntarioen eginbeharrak. Honenbestez, laguntzeko gogoia duen orori dei egiten diete izena emateko. Informazioa zabalteko asmoz, bihar Triangulo plazan egongo dira goizean zehar triptikoak banatzen.

Arrietak atzo egindako aurkezpenean belaunaldien arteko loturaren beharra nabarmendu zuen. Bere hitzetan, oso garrantzitsua da hauen arteko harremana sendotzea, azken batean, «lehenago edo berandago denok zahartuko baikara». Bestalde, adinekoei, bizitzeko gogoia eransteko bide gisa ere aurkezten du zinegotziak proiektu hau.

Boluntario gisa lan egiteko interresa dutenek gizarte zerbitzuetako bulegora jo dezakete izena emateko. Horretarako epea zaba-



Atzo goizean aurkeztu zuten ekimena Jose Agustín Arrieta eta jada izena eman duten boluntario batzuk. E. EZEIZA

lik dago jada. Behin izena emateko epea itxita, eta Inauteriak igarota, boluntarioei formakuntza ikastarobat eskainiko zaie. Hutsetik hasi beharrean informazio pixka bat izan dezaten, eta zer egin behar duten jakin dezaten.

Bihar goizean triptikoak banatuko dituzte Triangulo plazan, jendea ekimenaz informatzeko

Ezintasuna dutenak, eta zerbitzuaren beharra dutenak Udaleko gizarte zerbitzuekin jarriko dira harremanetan, eta honek koordinatuko du dena. Hala, boluntario bakoitzak zenbateko maiztasunez lan egin behar duten zehazteke badago ere, gutxi gorabehera, astean bi ordu igarotzeaz hitz egiten zuten Udalekoek.

Boluntarioen lan eremua zabala izango da. Alde batetik, batzuk etxe pribatuetara joango dira, beste batzuk berriz eguneko zentrorra, eta izango da adinekoein egoitzara

ere joango denik. Bestetik, bide berri bat irekitzeko asmoz, Atzegirekin eta Gurea taldekoekin lan egitea ere aurreikusten ari dira. Izan ere ezintasunak dituztenetako asko jada hirugarren adinean daude, eta laguntza gehigarri bat behar dute.

Boluntario lana egiten

Nagusilan elkarteak eta Tolosako Udalak antolatuta, azaroaren 18an hitzaldi bat eskaini zuten *Adinekoko gizarteari laguntzeko gogoz* izenburupean. Bertan eman zuten estreneko, egitasmoaren berri. Honen ostean, zenbait emakume boluntario agertu ziren egitasmoa gauzatzeko.

Denek ere, beharrezkotzat ikusten dute horrelako proiektu bat. Askok, gertutik bizi izan dituzten esperientzien ondorioz, badakite, heldua izatean, eta ezintasunak edukitzean, oso garrantzitsua dela pertsona bat inguruan izatea, gutxienez, konpainia egiteko. Berriantzat, horrelako lan bat egitea aberasgarria dela azaldu zuten, eta

norbera ezagutzeko nahiz gauza asko ikasteko balio duela.

Nagusilan, boluntarioei esker lanean

Nagusilan adin nagusikoen giza boluntariotza elkarte da. Bertako kideen betebeharra laguntza behar duten adinekoei konpainia egin eta ahal duten neurrian babesa ematea da, guztia modu boluntarioan.

K Kirol jarduera

Gaur, ostirala

Areto futbol

■ Bigarren mailako partida, Usabalgo goiko kantxan, 20:45ean: Laskorain eta Naturista M^a Carmen.

■ Usabalgo beheko kantxan neskek, 20:45etik aurrera: Laskorain - Axular.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:55etik aurrera, junior mailako norgehiagoga: Orbela - Astigarra-ga.

Bihar, larunbata

Saskibaloia

■ 09:00etan, Usabalgo goiko kantxan infantil mutilak: Ipar TAKE - Easo. Ondoren, infantil neskak: Mende TAKE - Easo.

■ 10:30ean, Usabalgo goiko kantxan infantil mutilak: TAKE Ori - Gamon. Ondoren, maila berekoen beste partida bat: Ego TAKE - Oke.

■ Usabalgo goiko kantxan 16:00etan junior neskek: Aralar - Inter.

■ Usabalgo goiko kantxan 18:00etatik aurrera, senior mailakoak: TAKE - Iraurgi.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, 09:30ean, emakumezko kadeteen futbol 8a: Tolosa CF - Bergara.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, lehendabiziko mailako kadeteen partida: Tolosa CF - Usurbil.

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, preferente: Tolosa CF - Amaika bat.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, lurraldekako lehen mailakoak: Amaro - Bergara.

■ Berazubini, lurraldekako ohorezko mailan, 16:30ean, Tolosa CF - Hernani.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, infantil ohorezko maila: Tolosa CF - Hondarribi.


Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, kadeteak: Tolosa - Kari-bez Zaharra.

Etzi, igandea

Eskubaloia

■ 12:00etan, Usabalgo goiko kantxan jubenilak: Tolosa - Hondarribia.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

AINARA GASTEARENA ETA ENEKO ASTIBIA › Torrea elkarteko kideak



ASIERIMAZ

«Inauterietako Barrikotea auzolanean antolatzen dugu»

Leitza › Torrea elkartek VI. Barrikotea antolatu du hoteetako azken egunean, hilaren 26ean; txartelak Torrea Herrikoan aurkitzen dira.

ASIERIMAZ

Leitzako Ihoteak bihar hasiko dira, hilaren 26ean amaitzeko. Ainara Gastearenak (Leitza, 1981) eta Eneko Astibiai (Leitza, 1976) lanean igaroko dituzte lau egunak, Torrean. Elkarteak, azken egunean, VI. Barrikotea ere antolatu du.

Elkarteak Ihoteen azken egunean Barrikotea antolatu du. Nondik sortu zitzaizuen ideia?

Eneko Astibia: Duela sei urteko Inauterietan Torrea Herrikoa sagardotegiz atsauretu edo moztu genuen; *Torrea Sagardotegi* eta horrelakoak jarri.

Ainara Gastearena: Ihoteetako astearte egun potentzia izan ohi da, jendeak asteazkena jai hartzen du eta parranda handia egoten da. Torreak sagardotegi itxura zuen, azken egunean zer baitgen behar genuela pentsatu genuen.

E. A.: Sagardotegi menua eskaintzea erabaki genuen eta izugarriko arrakasta izan zuen, 80 lagun inguru elkartu baitziren. Hori ikusita, Inauterietan urteroko ohitura bilakatzea erabaki genuen eta aurten VI. Barrikotea egiten dugu. **Zer egin behar dute bertara joan nahi dutenek?**

A. G.: Torrean erosi behar dira

txartelak. Horretarako azken eguna astelehena, ilbeltzaren 25a, izango da. Menua berriz sagardotegiakoa da: bakailao tortilla, bakailao takoak piperrarekin, txuletak, izozkia eta kafea eta kopa.

Elkarteko kideok prestatuko al duzue hori guztia?

E. A.: Auzolanean egiten dugu dena. Txuletak adibidez kanpoko parrilan erretzen ditugu eta Torreako sukaldean tortillak eta beste guztia prestatuko dugu. Zerbitzari bezala pare bat lagun ibiliko dira.

Beste ekimenik antolatu al duzue Inauterietarako?

A. G.: Torrean afariak emango ditugu larunbatean, igandean eta astelehenean. Afari normalak izango dira, hau da, hona etortzea edo deitze nahikoa izango da horietarako. Bestalde, kontzerturen bat antolatu nahi baldin baduzu, oholta eta abar jarri behar izaten dira. Beraz, denbora eta leku aldetik larri ibiliko ginatke. Gainera, Gazte-txea horretarako egokiagoa da eta bertan antolatu dituzte Karaoketa, larunbatean, eta The Sparteens taldearen kontzertua, asteartean.

Barrikotea, afariak, taberna... Inauterietan lan egitea tokatu zaizue, beraz.

A. G.: Bai, baina festa barraren beste aldean egiten dugu. Inauterietan lan egitea ez da beste egunetan edo jaietan lan egitea bezala; zu ere mozturrotuta etortzen zara eta beste giro bat egoten da. Nik behintzat oso ondo pasatzen dut, nahiz eta lanean aritu.

Barraren beste aldean zer ikusten duzue?

A. G.: Jendeak pazientzia gehiago dauka Inauterietan; katxondeorako tarte gehiago egoten da eta oro har, umore hobegoan ibiltzen gara denak. Barraren bi aldeetan mozturroturik dagoen jendea egoten da eta ez da trago bat eskatu,

«Urtero Ihoteetara etorri izan diren lagun askoren hutsunea sumatuko dugu aurten ere»

atera eta agur. Katxondeo gehiago egoten da. Agian larunbatean ez horrenbeste, lan asko egoten delako baina bestela bai.

E. A.: Festa egitea tokatzen denez, giro hori egoten da, baina hutsuneak ere nabariak izaten dira. Urtero urtero etorri izan diren lagun asko ez dira egongo. Batzuk preso dudelako, borrokaldian gainera, eta besteak ez dakigulako non dauden. Horrenbeste urtez tabernan lanean zabiltzanean, lagun asko egiten dituzu. Urtero etortzen zi-

ren horiek gainera garai honetan ikusten zenituen, eta orain haien hutsunea sumatzen duzu. Borrokaldian aurkitzen direnei eta hemendik urrun daudenei ere elkartasuna azaldu nahi diegu; eurez gogoratzen garela esan nahi diegu. **Atsedean hartzeko denbora ere izango duzue. Eskean edo karrozekin irteten al zarete?**

A. G.: Egia esan ez naiz inoiz irten. Alde batetik lanagatik eta bestetik aukeriazan nuenean ez nintzelako animatu. Herritar askorentzat berri-eguniki onenak horiek izaten dira; baserrietara eskean joatea askorentzat Inauterietako gauzarik onena izan ohi da.

Leitzakoak amaitzen direnean, Iturenera eta Zubietara?

A. G.: Bai, noski. Aurten gainera asteburu desberdinetan tokatu dira. Leitzakoak urtarrilaren laugarren igandean izaten dira eta Zubietakoak eta Iturengoak hilaren azken igandean. Hilabeteak normalean lau aste izaten dituen, gehienguan elkarrekin batera izaten dira Inauteriak. Aurten berriz, urtarrilak 5 aste dituen, hemengoak amaitzen direnean hasiko dira han. Astelehenean Zubietako joalduak Iturenera joaten dira eta asteartean alderantziz, Iturengoak Zubietara.

Giro desberdina egoten al da?

A. G.: Oso. Inauteriak beste modu batean bizitzen dira Zubietan eta Iturenen. Hemen ere zaletasun

handia dago baina prestatuagoak izaten dira. Garai batean han bezala izango ziren baina gaur egun, harremanagatik edo, Tolosara gehiago begiratzen da.

E. A.: Niri ere horrela iruditzen zait. Gu txikiak ginenean atsaure-tzea aurpegia estaltzea zen; inork ez ezagutzea zen helburua. Elkarren atzetik ibiltzen ginen korrika globo, egunkari edo makiltxo batekin. Beti zu baina gazteagoa zena- ren atzetik ibiltzen zinen, inoiz zaharrago baten atzetik, hauek zuk gogoratzen garela esan nahi diegu. **Helburua beraz hori zen, inork ez ezagutzea. Bazen jende heldua karrapen egoten zena, musika entzunez eta dantzan. Aurpegiak estalirik egoten zirenez, inork ez zuen jakiten norekin ari zen dantzan. Lehen hori izaten zen eta denborarekin galtzen joan da.**

A. G.: Azken urteetan atsaureak berreskuratzen ari dira, baina oraindik jantziak erosten eta karrozak egiten dirua joaten da. Iturenen adibidez, lau trapu jantzi, aurpegia estali eta kalera irteten zara. Hori oraindik mantendu egiten da; ez duzu aurpegia tapaturik ez den mozturrotu bakar bat ere ikusiko.

Lehen Inauterien datak aipatu dituzue. Ba al dakizue zergatik diren horrela?

E. A.: Lehen denak garai berean izaten ziren. Franko Inauteriak debekatu zituen, beste festa moduko batzuk jarri zituen, baina data aldatuz, hau da, hilaren laugarren igandean asmatutako jai horiek ospatzen ziren. Inauteriak berri-egutegira zirenean, batzuk lehen egutegira itzuli ziren eta besteak bere horretan gelditu ziren.

Maindire arteko solas eta jolasak protagonista gaur Gurea Antzokian

Villabona » Matxalen de Pedro eta Aitor Beltran antzezleek 'Ohean' antzelana 22:30ean aurkeztuko dute.

ENERITZ MAIZ

Gaua, parranda eta jai giroa nagusi. Bi ezezagun hizketan hasi dira. Trago bat, irriak, muxu bat, beste trago bat, besarkada bat eta beste bat. Gauaren iluntasunean, biak, ohera. Behin ohean egonik, gure hurrengo protagonistek parrandaren amaieran ohean izandako bizipenen berri emango digute.

Ohean antzezlan Villabonako Gurea antzokian ikusteko aukera izango da gaur 22:30ean. Sarrerak 8 euroko balioa du eta gazte txartelarekin erosit gero 6 euro baino ez daordaindu behar. Iabi urtez, Euskal Herriko txoko askotatik pasa dira eta antzezteko lana Aitor Beltran eta Matxalen de Pedro aktoreen esku dago. Sari mordoia esku-ratu zuen *En la cama* film txiletarra, Maskarada taldeak antzerkiera eraman du. Obraren euskaratze eta egokitze lanak berriz Unai Elorriaga idazleak egin ditu. Ordu bat eta hamabost minutuko iraupena duen lana, antzezlari xume bezain sakona da. Carlos Panera zuzendariak esana da: «Denok ezagutzen dugun egoera aurkezten du obrak; ezezagun bik gau bat pasatuko dute elkarrekin».

Antzezlanean bikotea osatzen duen Matxalen de Pedro bilbotar



Aitor Beltran eta Matxalen de Pedro antzezleak *Ohean* antzeztzen. MASKARADA

aktorearekin hitz egin dugu bi urtez antzeztzen ari diren antzerkiaren inguruan: «Egia esan ezin gara kexatu. Kontuan izanda euskaraz baino ez dugula antzeztzen, Euskal Herrian zehar leku askotan ibili gara».

Euskaldunak hotzak garela ez da gaurko kontua eta honelako antzerki baten aurrean «jendeak oso ondo erantzuten du eta era berean oso ondo pasatzen du» azpimarratu digu. Antzezlanean «bere puntu komikoa, dramatikoa, ludikoa eta dibertigarria dauka. Momentu batean abestu eta dantzatu ere egiten dugu eta barru-barrukoak eta sexualak diren momentuak ere baditu, denetik dauka».

Oso publiko ezberdina izan ohi dutela azaldu digu eta ikusle moduan 16 urtetik gora, era guztieta-ko publikoa izan dutela baieztatu digu, nagusiak ere bai.

Dibertigarria, komikoa eta ludikoa da. Barneko eta sexualak diren momentuak ere baditu

Antzezlana euskara hutsez aurkeztearen inguruan galdetu diogu: «bertsio bat da eta guk, hau da, zuzendariak eta aktoreak egin genuen euskaratzearen aldeko lehen apustua eta proposamena. Gero Unai Elorriagak egokitu du baina

guk nolabait kaleko euskararen egin nahi izan dugu. Bere erdarakadekin eta kalean jende gazteak hitz egiten duen moduan».

Antzeztu beharreko papera dela eta, «probak pasa eta lana izatean asko poztu nintzen. Lehen aldiz parte hartzen nuen honelako proiektu batean. Protagonistaren papera eta hain paper luzea izatea zen nire beldurra. Papera zaila zen baina beldurrak baino pisu handiago hartzen zuen momentu horretan aukerak berak eta esperientzi hori edukitzeko gogoak» dio.

Aitor Beltran du bikotekide, «luxu bat izan da bera bikotekide izatea. Arreta handiarekin erantzuten du eta lehen egunetik kimi-

» 'OHEAN' ANTZEZLANA

Matias Bizé-ren filmean oinarritua

- **Antzezleak.** Matxalen de Pedro eta Aitor Beltran.
- **Ekoiak.** Maskarada.
- **Musika.** Rafa Rueda.
- **Zuzendaria.** Carlos Panera.
- **Jatorrizko gidioa.** Julio Rojas.
- **Itzulpena.** Unai Elorriaga.

ka handia izan dugu eta eskerrak horri. Horrelako profesional on batekin lan egitea eta gustura egotea bikaina da. Askok laguntzen du»

Bukatzeko mezu hau eman digu: «oso ongi pasatzeko antzezlana da eta ziur ez banago ere baliteke azken emanaldia izatea gaurkoa. Inguru horretan aspaldian ez gara egon eta animatu ikustera».

Antzerkiaren nondik norakoak

Honela laburtzen dute ordubate pasako antzezlana: «Taberna batean elkar ezagutu eta handik ordu batzuetara, gizon batek eta emakume batek hotel merke batean sexu gau bat elkarrekin pasatzeko gela hartzen dute. Ez dute elkarren berri, ezta bestearen izena ere, eta egun horren ostean ez dute berriro elkar ikusiko».

Sexuaren ostean, bi arrotz hauek, beraien artean halako kimika bat sortu dela ohartzen dira. Hizketan hasten dira eta euren iragan eta intimitateari atea zabaltzen dizkiote. Euren kontakizunetan oroitzapenak eta ametsak tar-tekatzten dira, gezurrak eta egiak, gurariak eta beldurrak, zintzotasuna eta traizioa, maitasuna eta gorrotoa. Gauean barrena nahastuz doadena...» hortik aurrerakoak jakin, ikusi eta bizitu nahi dituenak Villabonako Gurea Zinemara joatea baino ez du.

Asteburuan partidaz partida, pilotari gazteak

Villabona » Gaur, bihar eta etzi maila eta era guztietako partidak izango dituzte Behar Zanak pilotari gazteak.

ERREDAKZIOA

Txapelketa batetik bestera eta partida batetik bestera dabilza eskualdeko pilotariak. Ez dute atsenden tarterik. Atzo, gaur, bihar eta etzi pilota partidak ikusi nahi dituenak badu non ikusia.

Gaur Villabonako Bearzana pilotalekuan Udaberri txapelketari dagozkion lehen mailako bi partida jokatu dira 19:00etan hasita. Lehen partida jubeniil mailakoa izango da eta Karrera-Artaza bikoteak Antiguako bikotearen aurka jokatu du. Ondoren nagusi mailan, Esnaola eta Benoit Errekak Antiguako bikotearen aurka jokatu du.



Behar Zana Elkarteko pilotariak partida jokatzen. E. EZEIZA

Bihar bertan, 22:00etan, Behar Zana Elkarteko pilotaria den Laurent Errekak, promesa mailan, Elgoibarko San Anton torneoko finala jokatu du.

Larunbatean ere ez da faltako pilota partidarik. Alde batetik, goizean, Azkoitian, Otañok eta Artzaiak kadeteen lehen mailako partida izango dute eta bestetik, Usurbilen Iñaki Lizaso eta Laurent Errekak, Udaberriko txapelketako lehen mailako partida jokatu du.

Arratsaldean, Amasako pilotalekuan 15:00etan hasita benjamin eta alebilen lau partida izango dira. Ondoren, Gipuzkoako txapelketari dagozkion errendimenduko infantilen mailako lau partida jokatu dira.

Alegian ere alebinek errendimendu mailako partidak jokatu dituzte. Behar Zana Elkarteko benjamin eta alebin mailako beste pilotariak berriz, Asteasun jokatu dituzte partidak.

Igandean ere atsenden ez

Igandean ere pilotari gazteek kilometro asko egin beharko dituzte.

Malerrekako txapelketan diharduten Ugartemendia eta Alberdi benjaminen Legasan izango dute partida goizeko 10:00etan hasita. Alebin mailan, Julen Aizpuruak Andoaingo Setien lagun duela Iruritan jokatu du partida. Infantil mailan, Labaka-Erasun bikoteak, Irisarri-Gallegoren aurka jokatu du Lezakako 09:00etan hasita. Mikel Otaño Villabonarrak, Erostarbe Urretxuarrak lagun duela, Beran jokatu du 11:00etatik aurrera. Ordu berean baina Zizurko Txapelketan, Eneko Zubiaurrek banaka jokatu du partida.

Eta bukatzeko, Villabonan bertan, 11:00etan Joko-garbiko partidak izango dira Bearzana pilotalekuan, Behar-Zana 2 eta Zubietan 2 taldeen artean izango da lehia hain zuzen ere.



» HAINBAT DATU

TAO zonaldeak

■ Zona urdina.

188 aparkaleku (Euskal Herria 1-27, 7-17, 17, Idoiaga 3-13 eta Beko Bide 2-6).

■ Zona gorria.

23 aparkaleku (Euskal Herria 37-41 eta Osakidetza aurrealdea).

TAO ordutegia

Astehenetik ostiralera.

■ Goizez. 09:00etatik 13:30era.

■ Arratsaldez. 16:30etik 19:30era.

Tarifak

■ Zona urdina.

Aparkatzeko gehienezko denbora 2 ordu: 1,50 euro.

■ Zona gorria.

Aparkatzeko gehienezko denbora, ordu bat: 1,50 euro.

■ Salaketak.

Hurrengo 30 minutuetan, 2 euro; hurrengo 2 egunetan, 10 euro.

Besteak beste, aparkaldiaren eremuak eta aplikagarri diren eremuak zehaztu zituzten. Urdin eta gorri koloreekin desberdintzen dituzte bi eremuak. Urdinean, gehienez bi orduko aparkaldia baimentzen da eta gorrian ordubeteko dago gehienezko aparkaldia.

Bertakoentzat arauak ere argi geratzen dira ordenantza honetan. Hain zuzen, bertakoak dira TAOk eragindako kaleetan bizi direnak. Hala, TAOko eremu urdinean doan aparkatu dezakete bi eremuetako bizilagunek, baina eremu gorrian aparkatzeko denbora muga dute eta dagokion tarifa ordaindu behar dute.

«Sei hilabete barru bilera egingo dugu»

Txelo Romeok, Ibarako alkateak, sistemak sei hilabete betetzen dituen merkatariekin eta bizilagunekin biltzeko jarrera erakutsi du, «erabakia zuzena izan den edo ez baloratzen». Sistemaren helburua «inguruko herrietako aparkaleku bihurtu ez dadin, mugikortasuna bermatzea» dela gogoratu zuen alkateak neurria onartu zenean.

Karmele Otsandorenak ere merkatariekin eginiko bileran «proba bat» zela esan zieten dio eta ondoren «berriz ere eztabaidatuko» zutela. Denborak esango du, beraz, TAOrena neurri egokia izan ote den.

Pasa den urtarrilaren 1etik aurrera ibilgailuak aparkatzeko TAO sistema dago Ibarako bi eremutan; erabakiak hautsak harrotu ditu; sistemaren aldekoek eta aurkakoeke euren argudioak eman dituzte.

NOELIA LATABURU

Lehen asteak egin ditu TAOk Ibarako kaleetan. Erabaki eztabaidatua izan zen hasiera batean, herritar asko sistemaren aurka azaldu baitzen. Hala ere, Tolosako ereduari jarraituz herriko kaleetako aparkalekuak gorritu eta urdinez margotu eta aparkaldi mugatuko bi zonalde finkatu dituzte herrian.

Bizilagunen iritzia

Egoiliarrek txartel berezia dute eta honi esker eremu urdinean aparkatu dezakete ordaindu gabe. Baina, zer diote beraiek sistema honi buruz? Gustura al daude erabakia rekin? Lortu al du TAOk herrian mugikortasuna bermatzea? Kale-ara ateratzea baino hobierik ez, galdera hauei erantzun egokia bilatzeko.

Iker Lasa Ibarako bizilaguna da. «Lehen aparkatu ahal izateko buelta pila bat» eman behar zituela azaldu du eta «orain egia da leku gehiago dagoela». Berak ez daki «TAOrena sistema egoki den edo ez baina egia da zerbaitekin egin beharra zegoela; autoguztiak bigarren ilaran uzten zituzten eta ibar-

tarrek askotan ezin genuen aparkatu». Beste hausnarketa bat ere planteatu du ibartarrak: «Bere garaian isunak jarri izan balira agian ez zen beharrezko izango orain neurri hau hartzea».

Erabiltzaileen dudak

TAO makinan Mari Kruz Sastre txartela ateratzen ari da. Anoetar honek Ibaran egin du lan eta ez du uste «sistemak ondo funtzionatzen duenik». Izan ere, «langileek ere txartela berritu behar dugu bi orduko eta lanetik atera behar dugu horretarako». Gainera, sistemak «merkatariei ez die asko laguntzen», bere ustez: «Lehen jendeak aparkatu eta di-da egiten zituen beharrezko erosketak, Ibarra igarobideko herria zen. Orain, al-diz, aparkatu eta txartela atera behar izaten dute, askok ziur paso egingo dutela».

Sistemaren inguruan dio «nahiko zorrotzak» direla isunak jartzeko unean. «Ja ez dute txanponak lortzen ere uzten, makinan sartzeko». Hori bai, txanponaren beste aurpegia ere ikusten du berak. «Egia da Ibarra lehen Tolosan aparkatu ezin zutenen aparkale-

«Lehen oso zaila zen Ibaran aparkatzea; orain egia da aparkaleku huts gehiago daudela»

IKER LASA
Bizilaguna

«Lanetik atera eta bi ordu txartela berritu behar dut, nahiko zorrotzak dira gainera»

MARI KRUZ SASTRE
TAOko erabiltzailea

«Bezeroak gustura daude baina langileentzat beste neurri bat pentsatu beharko lukete»

KARMELE OTSANDORENA
Karlitz tabernako arduraduna

kua zela; horrekin bukatzea lortuko dute, orain aparkaleku hutsak ikusten direlako».

Bigarren erabiltzaile batek «merkea» dela uste du eta «enkar-guak egin behar dituztenean ondo dago gutxi ordainduta aparkaleku zaurtaturik duzulako».

Herriko merkatariek zer diote?

Euskal Herria kalean dagoen Karlitz tabernako arduraduna da Karmele Otsandorena. Eremu urdina du orain kale honek eta, ondorioz, zuzenean eragiten dio bere negozioari. Bezeroentzat «erosotasuna» dela dio berak, izan ere, «20 zentimoren truke lasai etor daitezke zerbaite hartzera edo euren erosketak egitera». Orokorrean tabernako bezeroak «oso pozik» daudela gaineratzen du.

Haatik, langileen kasua oso bestelakoa da. «Gehienez hiru orduz aparkatu dezakezu, gainera, txartela berrituta ere autoa lekuz mugitu behar duzu». Merkatariek TAO txartela lortzeko autoa Ibaran erroldatu eta dendaren jabe direla egiaztatzen behar dute. Horregatik, «langileentzat beste zerbaite pentsatu behar lukete», Otsandorenaren ustez.

Aparkaldiaren erregulazioaren ordenantzaren gakoak

Bide publikoetan ibilgailuen aparkaldia erregulatzeko ordenantza pasa den urtean arautu zuen Udalak. Bertan, sistemaren nondik norakoak finkatu zituzten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Pasa den urtean bezala, neurri bereziak jarriko dituzte «zezen-plazara gerturatzen direnen segurtasuna bermatzeko helburuz». I. GARCIA

Lauburu areto futbol taldeak Zierbena ligako liderra hartuko du bihar etxean

Ibarra » Txubel-en mutilek hirugarren dira sailkapen orokorrean; 5 puntuko alde dago bi taldeen artean.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Lauburu KE taldeak 2010. urteko lehen partida jokatu du etxean, bihar. Ez da nolana hiko partida izango, gainera, ligako liderra den Zierbena hartuko baitu Belabietara kiroldegian. Bizkaitarren aurkako lehia 18:30ean hasiko da.

Txubel entrenatzailearen mutilek arerio gogorra izango dute, beraz, aurrez aurre. Bost puntuko alde dago bi talde hauen artean sailkapen nagusian. Garaipen batek 2 puntura jarriko lituzke, baina galduz gero lehen postua 8 puntura geratuko da. Hala ere, ez da erraza izango Zierbenaren aurka irabaztea, oso talde indartsua delako. Txubel-en jokalaririk guztiak jokatuko moduan dira. Taldetik, ohi

Irabazita Ibarako taldea lehen postutik 2 puntura geratuko litzateke; galduz gero, 8 puntura

bezala, jendeari Belabietara gerturatzeko deialdia egin diote. Sarrera doako izango da.

Gipuzkoako jubenilak ere, iguera fasean

Gipuzkoako ligan ari diren jubenilek, euren aldetik, partida garrantzitsua jokatuko dute. Hain zuzen ere, txapelketa iguera fasean ari dira lehiatzen. Tolosako Laskorain taldearen aurkako derbya izango da Belabietan bertan, 11:00etatik aurrera.

Goizean nahiz arratsaldean, ikuskizuna ziurtaturik egongo da Ibarrako kiroldegian.

Azken egunak kontatzen

Inauteriak » Hogei egun baino ez dira geratzen Ostegun Gizona heltzeko; prestaketak eta entseguak egiteko egunak izango dira.

ERREDAKZIOA

Tolosako jairik zoroenak hasteko egun gutxi batzuk besterik ez dira geratzen, eta herritar askok ziur horixe besterik ez dutela izango dagoeneko buruan. Eta ez da harritzekoa, herritar ugari baitira, esaterako, egunero egunero Ferialekura karroza edo konpartsa prestatzera joaten direnak, 100 baino gehiago direlarik izena eman dutenak. Askok dira danborradetarako entseguetan ari direnak, edota aisialdi taldeetako kideak Astelenitarako ikuskizuna prestatzen dabilzanak. Eta beste ehunka kontu genitzake entsegu eta antolatze lanetan ari direnak.

Segurtasun neurriak Zezen plazan

Iaz bezala, «zezen plazara joaten direnen segurtasuna bermatzeko», Eusko Jaurlaritzaren araudia hartuko da kontuan, eta esaterako, hesiak jarriko dituzte «jendetza-aren sarrera antolatzeko», ezingo da igo tendidora kale estutik eta 16 urte behariko dira gutxienez zezen enbolatueta ateratzeko. Udalak herritarren kolaborazioa eskatu du neurrietan, «denon mesedera-ko baitira». Bestalde, Ostiral Mehekoa izan ezik gainerako sarrerak ordaindu egin behariko dira.

Kaleko musikaren inguruko neurriak

Karroza eta konpartsen soinu-anplifikadoreak kalean erabiltzeko muga ere aldatu egin dute. Hala, aurrerantzean, 01:00ak arte baino ezingo dira erabili. Orain arte, 02:00etatik aurrera ezarrita zegoen neurria.



Aurtengo Inauterietako kartela.

Berdintasun kanpaina

Berdintasun kanpaina jarriko du martxan Tolosako Udalak, Berdintasuna, Gizartea eta Kultura Departamentuak bultzatuta. *Bietatik nor astoago?* Inauterietan *joka sano!* lelopean, Inauterietan «emakumeekiko ja-

tor jokatzeke hausnarketa eragin» nahi duela ekimenak adierazi dute Udaletik, eta jai hauetan «errespeta-aren eta berdintasunaren alde» egitea beharrezkotzat ikusi dute.

Aisialdi taldeen ikuskizunak

Maiz gertatu izan dena da Astelenitan euria egitea eta aisialdi taldeen ikuskizuna bertan behera gertatzea. Hala, aurten, aisialdi taldeen eskaerari erantzunez, eguraldi txarra egingo balu dantzaldiak Usabal kiroldegian egitea erabaki da. Taldeek Udalarekin adostu dutenez, kiroldegira aisialdi taldeetako kideek baino ezin izango dute joan, «aforoa mugatua baita eta partaide kopurua oso handia da». Erabaki hori Astelenita egunean bertan goizean goiz hartuko dute.

Atzerako kontaketa hasia da, eta 20 egun besterik ez dira geratzen Ostegun Gizenerako. Nahikoa izango al da guztia behar bezala prestatzeko?

Advertisement for 'Tolosaldeko hitza iragarkilaburrak.com'. The ad includes contact information for Tolosa, Leizor, and other locations, as well as details about internet and newspaper services. It features a stylized graphic of a building and the website logo.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo.
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak: **BERTAKO HEDABIDEAK** eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegietea, Irura, Leaburu, Leitzza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Hitza-k Bai Euskarari

Gipuzkoako Foru Aldundia

A Agenda

Deialdia

■ **Tolosa.** Tolosa CF-ren urteko asanblada izango da gaur Kultur Etxean 19:30ean. Aurrekontuaren onarpena, lehendakariaren idatzaren irakurketa eta elkartearren egoeraren informazioa izango dituzte hizpide. Antolatzailea: Tolosa CF.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Lekunberri.** Azpiroz M. A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Hodei Truk abesbatza 'O happy day!'n

TOLOSA ● Hodei Truk abesbatza ETB tiko *O happy day!* telebista saioan hartuko du parte. Joan den ostiralean izan zuten abesbatzen lehiaketa honetako lehenengo saioa eta gazteak oso gustura hartu zuten parte telebista saioko lehen grabaketan. Guztira Euskal Herriko 9 abesbatzek hartuko dute parte aurtengo saioan; Oriu, Donibane, Eibar, Durango, Donostia, Mallabia...

Hodei Truk abesbatzako arduradunek argitu dutenez, gaur izango dute bigarren galaren grabaketa. HITZA

A Agurrak



Nere ondoren etzandé eta
erren sobairteen zaitet
zure irria argukieta
ikusi besterik ezat
besarkada bat, osu gozo bat
noiz eman zuri amesten dat
itxaropena nik badut
ta irarango dat beti zat
inguratueta belterri ondara
gauza bat esango dirut
zure ondoren osaba maite
alaki bizi nahi baitut



Zorionak!

Zorionak!

Maite haugu! Ikusten eta ikusten ez dituen harresiak sortzen dizkiate; lasai, botako dizkiagu. Orduan, besarkatu eta garaipenaz gozatuko diagu. Bitartean gertu sentitze haugu. Osasuna!

✂

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info
eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitzza

✂

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa. Datu Personala Babestekoa, betetik, jakinarazten diragu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.-en fitza teji automatizatu batera pasatuko direla, eragilek dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezarritzeko eta kontratu egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, nahiz izanez gero, idatzi helbide honetara. TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.- Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info